

Fundación Laboral San Prudencio

50 URTE

Arabako industriaren eskutik



La Fundación

SAN PRUDENCIO

A detailed illustration of a woman's profile in shades of brown and tan, looking towards a globe. The globe is rendered with soft, watercolor-like colors in green, yellow, pink, and blue. The woman's hair is styled in a short, layered cut. The overall style is artistic and hand-drawn.

“Konpromisoa mugimenduan”

Joan den mendeko 50.eko hamarkadan, Gasteiz probintzietako hiriburu txiki bat zen, ia 50.000 biztanle zituen, eta jarduera ekonomikoa, batez ere zerbitzu, nekazaritza eta garrantzi gutxiko industriara bideratuta zuena. Baina zerbait gertatzear zegoen, eta horrek industrializazio urriko hiria aldatuko zuen, hiria geure herrialdeko industriaren garapen-gune nagusietako bat bihurtuz.

1954an Mercedes-Benz geure hirian ezarri zen eta, hamarkada bat geroago, Michelin. Bi enpresek langileen etorri handia eragin zuten eta ehunka enpresa osagarri sortu ziren, **Gasteiz maila guztietan sakon eraldatuz.** Biztanleriaren hazkunde handia gertatu zen: 1950ean 49.000 biztanle izatetik, hamar urte geroago, 68.000 biztanle izatera pasa zen, 1970ean 150.000ra helduz eta joera hori mantenduz, gaur egungo 250.000 biztanlera heldu arte. Hiriak Espainiako hazkunde demografikoaren marka guztiak hautsi ditu mende erdian, Estatuko biztanleko BPGren rankingaren buruan jarriz.

Industrializazioaren ondoriozko hazkundearen emaitza izan zen prestakuntza maila handiko pertsonak iristea; prestakuntza asko zuten lehen mailako teknikariak ziren, hobekuntzarako motibazio handia zuten eta, bakoitza bere eremuan, abangoardietan kokatzeko ahalegintzen ziren. Horrek guztiak ehun sozial eta produktiboa erabat eraldatu zuen, eta bide eman zuen prestakuntza erakunde berriak sortzeko (UPV/EHU, Diocesanas eta Jesús Obrero, institutu berriak, eta abar), merkataritza moderno eta lehiakorra sortzeko, eta hiriak hiri moderno, erakargarri eta biziz betea bihurtu arte izan duen **aldaketa itzela azaltzen duten ohitura eta pentsamolde berriak ekarri zituen.**

Dena den, industria moderno eta abangoardista handia ezartzeak berekin **ekarri zuen lan harremanak, eta enpresek haren inguruarekin zituztenak, modu erabat berrian planteatzeko beharra.** Beste leku batzuetan oso zaila (edo ezinezkoa) zirudien **enpresak eta langileak elkartzea bizi-baldintzak eta lehiakortasuna hobetu ahal izateko;** Gasteizen, aldiz, oso azkar gauzatu zen. Lehenik hainbat enpresak haien langile eta familien onurarako partekatzen zuten ekonomato baten bidez eta, geroxeago, ekonomatoaren hazitik sortu zen **LA FUNDACIÓN LABORAL SAN PRUDENCIO-ren** eraketaren bidez. Fundazioaren helburuak langileak zerbitzuz hornitzea eta enpresen ekintzak **Enpresaren Gizarte Erantzukizunaren** esparruan bideratzea ziren.

Nor gara?

400 enpresa

La Fundación ekimen nabarmenki arabarra da, lurralde honen kokagune eta eraldaketa industrial benetan handian sortutako sentiberatasun eta konpromiso sozialaren haztegia sortu eta garatutakoa. Mende erdia betetzear dagoela, fundazioa **ENPRESAREN GIZARTE ERANTZUNKIZUNA (EGE) garatzeko eta ezartzeko buru-belarri jarduten den irabazi asmorik gabeko euskal erakunde nagusia da**. EGE enpresen **lehiakortasuna** hobetzeko, eta langileen, haien familien eta arabar guztien **bititza** pertsonalaren eta lanekoaren **kalitatea** hobetzeko tresna da.

Fundazioak, egun, **Arabako ia 400 enpresa** biltzen ditu —horien artean daude Mercedes Benz, Michelin, Parke Teknologikoa, Pepsico, Naipes Fournier, Pferd-Rüggeberg, Arabako Osasun Mentaleko Sarea, Foru Erakundeak, Aurrenak, Electra eta Urssa bezalako kooperatibak, Persianas Mendía y Landa, Suntech eta Carrocerías Biyok bezalako enpresa txiki eta ertainak, batzuk aipatzearen—, eta **30.000 langiletik gora**. Haien familiekin batera, guztira 80.000 pertsona inguruko taldea osatzen dute, Arabako biztanleriaren laurdena.

Enpresa eta langileak elkartzeko eta **integrazzeko plataforma** gisa aritzen gara, eta berrikuntzak egiten ditugu komunitatean, balio bereizgarri bat emanez.

Irabazi asmorik gabeko erakundea

Lan Fundazioa

30.000 langile

Arabako Foru Aldundiak
lehentasunezko mezenasgo erakunde
gisa sailkatua

80.000 onuradun



Enpresa eta erakundeentzako ekimenak

ENPRESAREN GIZARTE ERANTZUKIZUNA

EGE gaietan ekintzak eta kudeaketa diseinatzea eta ezartzea.

LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

Prebentzio Zerbitzu Mankomunatua, osasunaren zaintza eta askoz gehiago.

INGURUMENA

Alor honetako lege-betebehar eta beharren estaldura.

COMPLIANCE

Prebentzioa, enpresetan delituak egin ez daitezten.

LANGILEEN LEHEN HAUTAKETA EGITEA

Bete gabe dauden postuetarako hautagaiak bilatzea.

BESTE LANPOSTU BAT EMATEA

Langile-berregituraketa prozesuen ondorioak jasan dituzten langileentzako lanpostu berri bat bilatzea.

GERTAKIZUNAK ETA SARIAK

Enpresen jardun onen inguruan sentiberatzea eta jardun onak saritzea.

ARETOAK LAGATZEA

Bileretarako eta prestakuntzarako.

EROSKETA-ZENTRALA

Erosketa-prozesuak optimizatzea eta kostuak murriztea.

Pertsonentzako onurak

PRESTAZIO MEDIKOA

Osasuna sustatzea.

LAN-POLTSA

Langabeentzako enplegua bilatzea.

EGOITZA-ZERBITZUA

Adinekoentzako irtenbideak, babespeko apartamentuetan.

AHOLKULARITZA JURIDIKOA

Baldintza berezietan.

GERTAKIZUNAK ETA SARIAK

Familien jardun onen inguruan sentiberatzea eta jardun onak saritzea.

BGAE

Pentsio- eta erretiro-planak.

NOMINATIVA

Zuk aukeratzen duzu prestazio ekonomiko hau zertan erabiliko duzun, zuk zeuk edo zuk nahi dituzun pertsonak.

COMPLEMENTARIA

Egoera berezian dauden pertsonentzako prestazio ekonomikoa.

CLUB DE COMPRAS

Familien gastu eraginkorrari mesede egiten dioten hobari eta pizgarrietan oinarritutako fidelizazio-programa.

enpresak

erretiroa

geure historia

Batzorde Iraunkor ohiaren lehenengo bilera 1968ko azaroaren 27an izan zen; **1969an eman zen** San Prudencio Ekonomatua Erregistroan inskribatzeko urratsa, haren ibilbidea martxan jartzeko irteteko seinale izan zena.

Ekonomatua eratzeko lehenengo Batzorde Iraunkorra honako hauek osatu zuten:

Presidentea:

Tomás Colón Beltrán, Esmaltaciones San Ignacio enpresakoa

Ordezkariek Ekonomikoak:

Práxedes Ochoa González de Echavarrí, Heraclio Fournier-ekoa

Alberto Gómez San José, Echevarria Hermanos-koa
Jose M^a Horcajada Martínez, Arregui-koa

Langileen Ordezkariek:

Mercedes Martínez de Murguía Gómez, Telefónica-koa
Jose Ignacio Echevarrieta Martínez, Sucesores de Aguirre-koa
Fernando Pascual Ruiz, Herza-koa

Gaur egun, Fundazioaren gobernu-organoa **Patronatuari** dagokio; **izaera paritarioa** du eta bertan parte hartzen duten kideek ordezkatzen dituzte **tamaina, sektore** eta **sentsibiltate sozial** guztietako **enpresen alderdi sozial** eta **ekonomikoa**.

Harrezkero, Fundazioaren historia ongi bereizitako lau alditan zehaztu dezakegu:

1969 – 1986

Ekonomatua irudiaren bitartez, haren jardura oinarritzko elikagaien salmenta izan zen.

1986 – 1997

Lan Fundazioaren irudiaren bitartez, ekonomatua banaketa modernora egokitu ziren.

1997 – 2010

Ekonomatua eta bertako langileak Eroski Sozietate Kooperatiboan sartu ziren eta La Fundación “berrantolatu” egin zen, enpresek, haien langileentzat, Enpresaren Gizarte Erantzukizunarekin lotutako alderdiak bideratzeko erabiltzen duten bitarteko gisa agertuz.

2011...

Pertsonengana hurbiltzen da, kide izatearen harrotasuna sustatzen duten zerbitzu unibertsalagoak eskainiz. Hartzaileak ardatz dituzten zerbitzu eta kudeaketa modernizatzea, eta horietan teknologia berriak txertatzea.



“Ahaleginak
mugitzen gaitu”

1997an berrantolatu egin zen, banaketarekin lotutako jarduerak alde batera utziz, eta enpresek, haien langileentzat, Enpresaren Gizarte Erantzukizunarekin lotutako alderdiak bideratzeko erabiltzen duten bitarteko gisa agertuz.

mugarriak

- 1969** San Prudencio Ekonomatoa sortzen da.
- 1986** Fundación Laboral San Prudencio-n bihurtzen da.
- 1989** Beretu egiten da A.I.F.A. Ekonomatoa, 1967-an Forjas Alavesas, Areitio, Imosa eta Ajuriak sortutakoa.
- 1991** Beretu egiten da Michelin Ekonomatoa.
- 1992** Beretu egiten da E.G.A. Ekonomatoa, Eraikuntza Sektorearen ekimenez sortutakoa. Cid Norte, S.A. eratzen da (gaur egungo Club de Compras).
- 1997** Ekonomatoak eta bertako langileak Eroski, Sdad. Coop.-an sartzen dira.
- 1998** San Prudencio Prebentzio Zerbitzu Mankomunatua eratzen da, Euskadi lehenengo prebentzio zerbitzu mankomunatua. Asociación Española de Fundaciones-eko (AEF) kide bihurtzen da.
- 2001** Birloya, S.L. sortzen da, babes ofizialeko etxebizitzak eta babespeko apartamentuak sustatzeko.
- 2003** Prud Pensión EPSV eratzen da. FUNKO, Fundazioen Euskal Konfederazioko kide egiten da. La Fundación-ek banaketa jarduerari guztiz uzten dio, horiek Cid Norte-ri transferituz. San Prudencio Ingurumen Zerbitzu Mankomunatua eratzen da. San Prudencio Enplegarritasun Zerbitzu Mankomunatua eratzen da.
- 2005** Arabako Foru Aldundiak, Lehenengo Mezenasgoaren baitan, Enpresen Gizarte Erantzukizunaren esparruko enpresa arabar bakartzat jotzen du La Fundación.
- 2007** Enpresen Gizarte Erantzukizunerako Araba Foroaren (FOARSE) kide fundatzailea.
- 2009** Konkurtso-egoeratan eta/edo EEE egoeratan dauden enpresa bazkideentzako laguntza ekonomikoa ateratzea.
- 2012** Irudi korporatibo berria eta mezu berria: "Zurekin konprometituta". Gasteizko Udalak Green Capital Itun Berdea Programaren Erakunde Babesle gisa aitortzen duen lehenengo enpresa-erakundea. Benefizia Linea abiaraztea: telefono bidezko zerbitzuak, kosturik gabe.
- 2013** Lehenengo laguntza unibertsala abiaraztea, osasun, hezkuntza eta kulturaren erabiltzeko: Nominativa
- 2016** Osasuna Zaintzeko Zerbitzua sortzea, langile propioak txertatuz.
- 2017** Compliance Penal Zerbitzua sortzea, bazkideentzako enpresa batentzat Euskadiko lehen eta estatuko bigarren UNE-19601 sinestamendua lortuz.



“Garaien erritmoan”

2019an ospatuko ditugu proiektu honen lehenengo 50 urteak. Proiektu hau ilusioz beterikoa da, beti dago bizirik eta etengabe egokitzen da, estatu mailan erreferentziazko erakunde gisa mantentzeko, duen abangoardiako posizioarengatik eta garrantziarengatik, eta gizarteari ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzeko gogoz.

lankidetzaren indarra

LANKIDETZA-HITZARMENAK

Arabako Foru Aldundia: Genero-indarkeria jasan duten emakumeen alorrean, enpresetan sobera diren langileei lanpostu berriak bilatzeko, Arabako enpresen jardunbide egokien txosten eta katalogoen alorrean.

Novia Salcedo: Gazteak, bekadunak, eta abar laneratzeko programak.

Egibide: Lankidetzaren enpleguaren eta prestakuntzaren alorrean.

Artium: Arte eta kultura Araban hedatzeko.

Vithas San José: Osasunak, ohitura egokiek eta gaixotasunen diagnostiko goiztiarrak duten garrantziaren inguruan kontzientzia harrarazteko eta hedapenerako proiektuak.

Deusto Business School: Prestakuntza jarduerak, praktika- eta enplegu-proiektuak, hitzaldiak, topaketak eta jardunaldiak, hedapena eta guneen erabilera.

Gasteiz On: Komunikazio kanpainak, tokiko merkataritza sustatzeko, sinergiak bilatzeko, estrategia,...

Tecnalia Research & Innovation Fundazioa: Lankidetzaren zerbitzu berritzaile eta teknologiko berriak izateko.

SARIAK


COPE saria, **genero-indarkeria jasan duten emakumeak laneratzeko egindako lanarengatik.**

Enpresa Solidarioarentzako IV. Bihotza Solidario saria, prentsa eta komunikazioko profesional talde handiak egiten duen aitortza publikoa dena, eta Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako enpresei ematen zaiena, haien jarduna gizartearekiko arduratsuak diren irizpideekin egin dutenean.

Enpresa Solidarioarentzako Urrezko Datu Saria.

Fundación Corresponsables Sariak, **bazkide-tutako enpresak itxi izanaren eragina jasan duten langileei beste lanpostu bat bilatzeagatik.**

“Mugitzearen
alde ona”



Bere ibilbidean zehar, La Fundación San Prudencio egindako lana aitortua izan da, aitorten zerrenda luze bati gehitzen zaizkion hainbat sariren bitartez.

50 urteurrena

“Indarberrituta”



Ospatuko den 50. urteurrena ezin da garatu barneko ospakizun huts gisa, izan ere, **Gasteizko hiriarentzat eta Araba osoarentzat benetako gertakizuna** izan daiteke, eta hala **izan behar da**.

Badakigu denbora igaro ahala, oroitzenen kutunenak ere itzal daitezkeela, baina badakigu ere **gertakizun batzuek oroimenean geratuko den aztarna uzteko gaitasuna dutela, eta ondare kolektiboaren parte bihurtzen direla**. La Fundación-aren ospakizunak, zalantzarik gabe, egin dugun bideari eta han jasotako lorpen ugariari arreta eskaintzeko aukera ematen digu, baina geure lurrari eta jendeari memoria kolektiboa onduko duten oroitzenen iraunkorrak legatu gisa uzteko ere baliagarri izatea nahi dugu.

Hamarkadak daramatzagu gertakizunak antolatzen, informatzeko, prestakuntza emateko eta gizartea sentiberatzeko bokazioz, eska daitezkeen zorrotasun, kalitate eta aurrekontuen soiltasun ahalik eta handienarekin. Hori dela eta, jarraian azalduko dugun programa berezia aurrera eramateko beharrezkoak diren **prestakuntza eta gaitasuna** ditugu.

Programa berezia, lurralde berezi batentzat eta Fundazio bikain batentzat. Talde handi eta konprometitu baten ezagutza, gaitasun eta gogo handiaren emaitza gisa **bete diren helburuak ospatzeko** balioko du, eta baita ere, **milaka pertsonak eta ehunka erakundek egindako ahalegina bistaratzeko**. Pertsona eta erakunde horiek, lankidetzan, adorez eta erabakitasunez lan egiten dute, mundu guztiak jakin dezan Araba ezin parekatuzko giza garapeneke, garapen sozial eta industrialeko lurraldea dela, eta La Fundación, sortu zenetik eta haren ibilbidean zehar, hiriko eta probintziako bastioietako bat dela.

“Gizonak igarotzen dira, baina erakundeek iraun egiten dute; ezin daiteke ezer egin pertsonarik gabe, baina ezerk ez du irauten erakunderik gabe”.

JEAN MONNET
Europa batuaren aita fundatzailea

helburuak

- 50 urteko historia posible egin duten pertsona, enpresa eta erakunde guztiei omenaldia egitea.
- La Fundación-ek Gasteiz eta Arabako industria- eta lan-ehunaren hazkundera eta sostenguan duen garrantzia azpimarratzea.
- Agerian jartzea zein garrantzitsua den enpresak etorkizun berbererantz nabigatu behar duten bi kolektiboz (enpresaburuak eta langileak) osatuta egotea.
- Gasteiz eta Arabari, eta aurreikusten diren gertakizunen prestakuntzan parte hartzen duten kolektiboei, ospatzeko ekitaldi eta gertakizunak eskaintzea, biztanleria guztiak parte hartzeko eta esku hartzeko aukera izan dezan.
- Hirian eta lurraldean aztarna iraunkor bat uztea, gogoratzeko modukoak izango diren gertakizun eta ekitaldiekin, hurrengo belaunaldientzako erreferente kulturalak eta/edo ludikoak izan daitezkeenekin.
- Kolektiboaren integrazio maila eta haren kide izatearen harrotasuna indartzea.
- La Fundación indartzea, Arabaren garapenerako "interes sozialeko" funtsezko erakunde gisa.

“Helmuga eta norabide bat ditugu komunean”

Geure erakundea enpresa eta langileak elkartzeko eta integratzeko plataforma gisa aritzen den Lan Fundazio bat da, komunitatean berrikuntzak egiten dituen, 50. urteurren honetan bistaratu nahi dugun balio bereizgarri eta osagarri bat ematen duena.

jardueren programa

50. URTEURRENAREN AURKEZPENA

► Data: 2018ko apirila

50. urteurrena osatzen duten jardueri hasiera emango dien ekitaldia da: gertakizunen programa aurkezteaz gainera, La Fundación-en historian esangura eta garrantzia izan duten pertsona eta enpresei omenaldia eta aitortpena egingo zaie.

LA FUNDACIÓN SAN PRUDENCIO GLOBO AEROSTATIKOEN NAZIOARTEKO NORGEHIAGOKA (RIG)

► Data: 2018ko urriaren 05etik 07ra

Gasteizen izango dute hitzordua dozenaka globok, gasteiztar guztien atseginerako.

Nazioarteko deialdia egingo da, parte hartu nahi duten aerostari guztientzat. Gertakizuna 3 egunez luzatuko eta, eta deialdiak erakartzen dituen parte-hartzaile eta ikusle kopuruaren arabera, **erreferentziatzko hitzordu bilaka daiteke, eta jarraipena duen ospakizun herrikoa.**

“50 URTEKO ENPRESA-HISTORIA” OROITZAPENEZKO ERAKUSKETA ARABAN

Atzerabegirako erakusketa iraunkorra, Arabako historia 60. hamarkadatik aurrera kontatzen duena, lurraldearen garapen industrialaren bitartez, funtsezko faktorea izan baitzen Gasteizen hazkunde eta eraldaketarako. Protagonismoa enpresei eta haien langileei ematen die, aurrerapenaren elementu nagusi gisa.

Aldi berean La Fundación-aren historia agertuko da, bere 50 urteko ibilbidearekin.

VITORIA-GASTEIZ SINFONIA BERRIA

Sinfonia bat konposatzea, batetik, Gasteiz eta Araba gaur egun direna izan daitezen denek egindako elkarlana eskertzeko, eta, bestetik, hiriari eta lurralde historikoari pieza artistiko iraunkor bat legatu gisa uzteko, gertaera berezietan erreproduzitu ahal izango dena, eta hiriaren eta lurraldearen izena mundu osoko entzuleengana eraman ditzakeena.

► Data: 2019ko martxoa

► Data: 2019ko apirila

“Haize alde”

KONPROMISOA MUGIMENDUAN

La Fundación-ak jarduera-programa bat eramango du aurrera 2018/2019an, izaera instituzionala, negoziozkoa, soziala eta kulturala izango duena, bere interes-taldeek urte hauetan guztietan zehar jarritako konfiantza eskertzeko asmoz.

Presidentea,

Yolanda Berasategui Epelde, Pferd-Rüggeberg-ekoa

Patronatuko Kideak (Arlo Ekonomikoa),

Álvaro Anguisola Rojo, Michelin-ekoa,
Jorge Lasaga Lizaranzu, Mercedes-Benz-ekoa,
Gabriel Jarava Melgarejo, Azol-Gas-ekoa,
José M^º Iñiguez Paño, Electra kooperatibakoa,

Patronatuko Kideak (Arlo Soziala),

Jesús Ignacio Fernández Caramés, Michelin-ekoa,
M^º Lourdes Montoya Sáez de Cortázar, Betico Compressors-ekoa,
Iñaki Vinagret Abajo, Talleres Mecánicos Legutiano-koa,
Iñaki Andrés Lozares, Mercedes-Benz-ekoa,

Zuzendari Kudeatzailea,

Esther Unceta-Barrenechea Olazar

eta egungo taldeak eta 50 urte hauetan zehar geure erakundetik igaro diren langile guztiek eskerrak eman nahi dizkiete ibilbide historikoa eta Fundazioa Araba eta Gasteizko gizartean ezartzea eta aintzatetsia izan dadin lortu duten Fundazioko kide zein kolaboratzaile gisa aritu diren titular, enpresa eta erakundeei.

Eta, urteak betetzen direnean esan ohi den bezala, hau ibilbide luze baten hasiera baino ez da, eta gure nahia da ibilbide honek aurrera egiten jarraitzea, printzipio berberekin eta "konpromisoa mugimenduan" idazpuruarekin.

Eskerrik asko.



A+G CONSULTORES DE GESTION, S. COOP.
AAF, S.A.
ABRASIVOS MANHATTAN, S.A.
AC HOTEL VITORIA, S.L.
ACEROS ESPECIALES LOGISTICA Y TECNOLOGIA, S.A.
AEG POWER SOLUTIONS IBERICA, S.A.
AFOGASCA
AGROMOTOR VEHICULOS INDUSTRIALES, S.A.
AGROMOTOR, AGRICULTURA Y MOTORIZACION, S.A.
AGRUPACION DE FUNDICION Y UTILLAJE, S. COOP.
ALAIÁ DENTAL, S.L.
ALAIZA BREWING, S.L.
ALAVA CLINICA DENTAL, C.B.
ALAVA SALUD DENTAL, S.L.
ALAVA-LASCARAY, S.A.
ALAVESA DE VEHICULOS, S.A.
ALBERTO ARSUAGA BALLUGERA
ALCASTING LEGUTIANO, S.L.U.
ALDAIXA COMPAÑIA AGRICOLA, S.L.
ALEACIONES ALAVESAS, S.A.
ALMACENES CAYPE, S.L.
ALPINE ELECTRONICS DE ESPAÑA, S.A.
ALSATEC, S.L.
AMA OREA, S.L.
AMOPACK, S.L.
ANA ISABEL PEREA UYARRA
ANGULEMA SERVICIOS MEDICOS, S.L.
APARTAMENTOS VITORIA GESTION, S.L.
ARABA DENTAL, S.L.
ARABAKO ELKAR KULTURA, S.L.
ARABAKO IBAIAK, S.L.
AREA PROYECTOS AUDIOVISUALES Y CULTURALES, S.L.
ARENAS DE LAMINORIA, S.A.
ARGO ALQUILERES Y TRANSPORTES, S.L.
ARTEPAN, S.L.
ARVACALOR, S.L.
ASIENTOS DEL NORTE, S.L.
ASOC. DE SERVICIOS SOCIO-LABORALES SAN PRUDENCIO
ASOC. PEQU. EMPRESARIOS DE TRANSPORTE EN CARRETERA
ASOCIACION DE EMPRESARIOS DE AUTOMOCION DE ALAVA
ASOCIACION DE JOVENES EMPRESARIOS DE ALAVA-AJEBASK
ASOCIACION ECONOMIA DOMESTICA
ASOCIACION NORTE DE GANADEROS, S. COOP.
ASOCIACION URARTEA'KO LAGUNAK
AUDIO SELECCION, S.L.
AURIA SOLUTIONS VITORIA, S.L.
AURRENAK, S. COOP.
AUSA ESTUDIOS PROCESOS, S.A.
AUSA NUEVAS TECNOLOGIAS, S.L.
AUSA PRODUCTOS ESPECIALES, S.A.
AUSA SERVICES HOLDING, S.A.
AUSA TRADING, S.A.
AUTOMOCION AGROMOTOR, S.A.
AUXIA-08, S.L.
AUXILIAR LAMINADORA ALAVESA, S.A.
AYERBE INDUSTRIAL DE MOTORES, S.A.
AZOL-GAS, S.L.
AZOLINVEST, S.L.
AZUCARERA EBRO S.L., S.U.
BALSA PACK HISPANIA, S.L.
BANKINTER, S.A.
BASILIO ARNAEZ GARCIA DE MADINABEITIA
BAZAN-LEX ASESORIA LABORAL, S.L.
BELL COMUNICACION, S. COOP.

BENTELER MPPV AUTOMOTIVE MANUFACTURING ESPAÑA, SLU
BEPAMI DENTAL,S.L.
BERETTA BENELLI IBERICA, S.A.
BETICO COMPRESSORS, S.A.U.
BHBIKES EUROPE, S.L.
BIRLOYA, S.L.
BRUNO TREVIÑO E HIJOS, S.A.
BSH ELECTRODOMESTICOS ESPAÑA, S.A.
BULTZAKI, S.L.
BURULAN, S.A.U.
CABOS, S.A.
CADENA ESTRELLA AZUL, S.A.
CAFES LA BRASILEÑA, S.A.
CAIXABANK
CAMARINI SHOP ONLINE, S.L.U.
CARMEN MOZAS PEREZ
CARROCERIAS BIVOK, S. COOP. LTDA.
CARTONAJES JABAR, S.A.
CASCOS MAQUINARIA, S.A.
CASTELLANOS Y ECHEVARRIA-VITORIA, S.A.
CATEC TECNOLOGIAS DE FUNDICION, S.L.
CELSA ATLANTIC, S.L.
CERAMICAS Y SANEAMIENTOS GALICIA, S.L.
CERENE 2010, S.L.
CEVISA FABRICACIONES, S.L.
CID NORTE, S.A.U.
CIE MECAUTO, S.A.U.
CIRCULO VITORIANO, S.R.C.
CLINICA DENTAL DONNAY, S.L.
CLINICA OFTALMOLOGICA GASTEIZ, S.L.
CLINICA SB GASTEIZ, S.L.
CLINICA VITORIA ARITZA, S.L.U.
COINALDE, S.COOP.
COLCHONERIA ELEJALDE, S.L.
COLEGIO OFICIAL A.T.S. Y DIP. ENFERMERIA
COLEGIO OFICIAL APAR. Y ARQUIT. TECNICOS DE ALAVA
COLEGIO SAN VIATOR
COMERCIAL INDUSTRIAL AUTOMOVILES Y RECAMBIOS, S.A.
COMERCIAL UDALA, S.A.
COMPAÑIA DE AUTOMOVILES DE ALAVA, S.A.
COMPAÑIA DE BEBIDAS PEPSICO, S.L.
COMPAÑIA VITORIANA DE EXCAVACION Y TRANSPORTES, SL
COMPONENTES DE AUTOMOCION RECYTEC, S.L.
COMUNIDAD DE PROPIETARIOS DONOSTI 23
COMUNIDAD DE PROPIETARIOS GETARIA 15
CONDESA FABRIL, S.A.
CONMOVIL VITORIA, S.A.
CONSTRUCCIONES SEGUROLA, S.A.
CORPORACION AZOL-GAS, S.L.
CORTETUBO GASTEIZ,S.L.
CRESPO CONSULTING, S.L.
CTL-TH ENGINEERING, S.L.U.
CTL-TH PACKAGING, S.L.U.
DACHSER LOGISTICA ALAVA, S.L.
DACHSER SPAIN, S.A.
DENTAL ANGULEMA, S.L.P.
DHL EXEL SUPPLY CHAIN SPAIN, S.L.U.
DHL PARCEL ARABA SPAIN, S.L.U.
DISEÑOS DACO, S.L.
DIVISION DE CONSTRUCCION, S. COOP.
E. RENTING, S.L.
EDUARDO LUIS EGUILUZ ALARCON
EGIBIDE KIROL KLUB
ELCA, S.A.

ELECTRA VITORIA, S. COOP.
ELENA SEDANO LOPEZ
EMBALAJES ALAVA VITORIA,S.L.
EMBALAJES ECHEBERRIA, S.L.
ERAIKI TALDEA APOYO ESCOLAR, S.L.
ERGOACTIV SPORT, S.L.
ERKIDE-FEDERACION DE COOPERATIVAS DE TRABAJO
ESAL INGENIERIA DE SERVICIOS, S.A.
ESTACION DE SERVICIO FORONDA, S.L.
ESTACION DE SERVICIO GAMARRA, S.A.
ESTACION DE SERVICIO GORBEA, S.L.
ESTACION DE SERVICIO ZURBANO, S.L.
ESTACIONES DE SERVICIO ONAINDIA,S.L.
ESTADIO, S.D.
ESTRUCTURAS METALICAS FRUTOS, S.A.
ETORKI KOOPERATIBA ELKARTEA
EURO DEPOT ESPAÑA, S.A.U.
EUROACERO ATLANTICO,S.A. (PLANTA VITORIA)
EUSEBIO ECHAVE, S.A.
EUSKO JAURLARITZA - GOBIERNO VASCO
EUSKOTRANS, S.COOP.
EXERCYCLE, S.L.
EZIOLAZA AMALUR, S.L.
FCC,SA Y GMSM MEDIO AMBIENTE,SA UTE LV RSU VIT-GAS
FERROVIAL SERVICIOS, S.A.
FERVILOR MICHELS, S.L.
FERVILOR, S.L.
FITNESS Km0, S.L.
FONTANERIA J.M. GARCIA
FRANCISCO MARTINEZ DE LIZARDUY MANZANOS
FRONERI IBERIA, S.L.U.
FUNDACION DIOCESANAS-JESUS OBRERO FUNDAZIOA
FUNDACION LABORAL SAN PRUDENCIO
FUNDICIONES INYECTADAS ALAVESAS, S.A.
GALBURUXKA, S.L.
GALVANIZADOS ALAVESSES CABA, S.A.
GAMARRA, S.A.
GAMEIN INVERSIONES, S.L.
GANALTO, S.A.
GARURTRANS GASTEIZ, S.L.
GASTEIZ MOTOR, S.A.
GAZDENT XXI, S.L.
GAZTEIZ, S.A.
GDENT CLINICA DENTAL INTEGRADA, S.L.U.
GESTORIA Y SERVICIOS JURIDICOS ALAVA, S.L.
GIRO ERDIAN, S.L.
GIROA, S.A.U.
GLM UNIGEST, S.L.
GMAPSA-GESTION DE MATERIALES Y PROYECTOS
GOROS, S.COOP.
GRA HEMISFERIO DE ACTIVIDADES MULTIMEDIA, S.L.
GRAFICAS IRUDI, S.L.
GRUAS IBISATE, S.L. (Nº 1245)
GRUPO POSTA 2004, S.L.
GRUPO SAGOLA SDAD. DE PROMOCION DE EMPRESAS, S.L.
GRUPO URVASCO, S.A.
HECEYGO, S.L.
HERMU-2, S.A.
HERRAJES OCARIZ, S.A.
HIJOS DE ZACARIAS URBINA, S.L.
HYBTRONICS MICROSYSTEMS, S.A.
I-MED, S. COOP. PEQUEÑA
IBAÑEZ ARANA, S.L.
IDCQ HOSPITALES Y SANIDAD, S.L.U.

IDEC, S.L.
IKAS-LEARGAITZ, S.L.
INDUSTRIA AUXILIAR MECANICA, S.A.
INDUSTRIA DE CAFE DEL NORTE, S.A.
INDUSTRIAS ARABA, S.L.
INDUSTRIAS AUXILIARES DE GALVANOTECNICA, S.A.
INDUSTRIAS COHES, S.L.
INDUSTRIAS DE PRECISION EZE, S.L.
INDUSTRIAS DIMO, S.A.
INDUSTRIAS PEÑA, S.A.
INDUSTRIAS ROLDAY, S.L.
INDUSTRIAS URFE, S.L.
INGENIERIA DE RESINAS TECNICAS, S.L.
INMEPRE, S.A.
INMOBILIARIA AGROMOTOR, S.L.
INMORODAR ARIZTI, S.L.
INSTALACIONES Y FONTANERIA MARIN,S.L.
INSTITUTO DE IDIOMAS MODERNOS
INSTITUTO FORAL DE BIENESTAR SOCIAL
INSTITUTO FORAL DE LA JUVENTUD
INTEGRACIÓN MECÁNICA Y ELECTRÓNICA, S.L.
INTERMAHER, S.A.
INVERSIONES SANITARIAS ISO 9000, S.A.
INVERSIONES Y SERVICIOS INTEGRALES AUTOMOCION, SLU
IQUIMESA SERVICIOS SANITARIOS, S.L.U.
IRATXE ZURBANO LOPEZ
ISABEL VALENCIA ZABALETA
ITM INGENIERIA Y TECNOLOGIA DE MECANIZADOS, S.L.
IZKIZ PROMOCIONES, S.L.
JARDINES DE ULETA, S.L.
JEDSA EMBALAJES, S.L.
JORGE DE EUGENIA JAUREGUI
JOSE JAVIER CHAVARRI RUBIO
JOSE LUIS AUTOTALLERES, S.L.
JOSE LUIS SAEZ PRESA
JOSE MIGUEL ERCILLA GORRICHATEGUI
JUAN PABLO CABERO
KEPA Mº MENDIA LANDA
LABORATORIO DR. F. ECHEVARNE ANALISIS, S.A.
LABORATORIOS MARUNCA, S.L.
LABORATORIUM SANITATIS, S.L.
LAGUN MACHINERY, S.L.U.
LAJO Y RODRIGUEZ, S.A.
LAKUDENT XXI, S.L.
LASCARAY, S.A.
LAVIOSA PROMASA, S.A.
LEAR CORPORATION SPAIN ALAVA, S.A.U.
LECIETON OPTICO, S.L.
LMAB GORBEA MENDIZABAL, S.L.
LORAMENDI, S. COOP.
LTK 400 OPERADORES DE LOGISTICA INTEGRAL, S.L.U.
LUIS DIÑEIRO GARCIA
LUYANDO OPTICOS, S.L.
Mº JESUS MARTINEZ GARCIA
Mº TERESA URRACA APARICIO
MANUFACTURAS SUAL, S.L.U.
MAQUINARIA URAMA, S.A.
MARGARITA ESCUDERO ARIAS
MATRICERIAS VILO, S.A.
MECANIZACIONES KIESERLING FABRIL, S.L.
MECANIZADOS KAPELAMENDI, S.L.L.
MECANIZADOS VEMAR 2011, S.L.
MEDICAR, S.C.
MERCEDES-BENZ ESPAÑA, S.A.

METALES HERMOSILLA, S.L.
METALURGICA CERRAJERA DE MONDRAGON, S.A.
MIASPE PROMOTORA EMPRESARIAL, S.L.
MICHELIN ESPAÑA PORTUGAL, S.A.
MIZAR ADDITIVE MANUFACTURING, S.L.
MOABA PROMOTORA EMPRESARIAL, S.L.
MODELOS VIAL, S.A.
MONTSERRAT LOPEZ DE LUZURIAGA YERA
MONTUCAL, S.L.
MORTEROS Y ARIDOS DE CALIDAD, S.A.
MOTOR GORBEA, S.A.
MOTOR VITORIA, S.A.
MOYALE, S.A.
MPK-55, S.L.
NAIPES HERACLIO FOURNIER, S.A.
NEWCO RETAIL NORTE, S.L.U.
NH HOTELES ESPAÑA, S.L.
NITROCYL, S.A.
NOVA RECYD, S.A.
NUTER, S.A.U.
OBRAS PUBLICAS ONAINDIA, S.A.
OBRAS Y EXCAVACIONES DEL NORTE, S.A.
OCARIZ, S.A.
OGIMAMIA GASTEIZ, S.L.
OLAN, S.A.
OLAZABAL Y HUARTE, S.A.
ONBISO INVERSIONES, S.L.
ONDAR, S.A.
OPTICA AVENIDA VITORIA, S.C.
OPTICA Y AUDIOLOGIA GAGO, S.L.
OPTICOS MAS QUE VER, S.C.
OPTIMITIVE, S.L.U.
ORTOPEDIA BASOA, S.L.
ORTOPEDIA BIDARI, S.L.U.
ORTOPEDIA FARIÑA, S.L.
ORTOPEDIA GASTEIZ, S.A.
OSAKIDETZA - OSI ARABA
OSAKIDETZA - RED DE SALUD MENTAL DE ARABA
OSG IBERICA TOOLING, S.L.
PARQUE TECNOLOGICO DE ALAVA, S.A.
PEDDINGHAUS ESPAÑOLA, S.A.
PEDRO DONCEL PRIETO
PEÑA VITORIANA TENIS-CLUB
PEPSICO HOLDING ESPAÑA ETVE, S.L.
PEPSICO IBERIA SERVICIOS CENTRALES, S.L.
PERSIANAS MENDIA Y LANDA, C.B.
PET-IBERIA, S.L.
PFERD ABRASIVOS, S.L.
PFERD-RÜGGEBERG, S.A.
PROFINE IBERIA, S.A. UNIPERSONAL
PROYECTOS, INSTALACIONES, MONTAJES ELECTRICOS S.A.
RADIADORES RAFA - JOSE CUESTA DIAZ DE ALDA
RCP INDUSTRIALES, S.L.
RECTIFICADOS SAMI, S.A.
RINGSPANN IBERICA, S.A.
RODAMIENTOS ARIZTI, S.L.
RODAR INNOVA, S.L.
ROTHENBERGER, S.A.
RPK, AUXILIAR DE PROCESOS Y MONTAJES, S.L.
RPK, S.COOP.
RPK. TECHNOLOGICAL CENTER, S. COOP.
RUBEL MAQUINARIA Y HERRAMIENTAS,S.L.
SAGOLA, S.A.
SALJOAR, S.A.U.

SAN MARTIN IMPRESION DIGITAL, S.L.
SAS AUTOSYSTEMTECHNIK, S.A.
SCHINDLER, S.A.
SEA EMPRESARIOS ALAVESSES
SEGUROS LASCARAY TAVIO, S.L.
SEMOVI, S.L.
SERIGRAFIA ALAVA INMOBILIARIA, S.L.
SERIGRAFIA ALAVA, S.A.
SERVICIO DE PREVENCION MANCOMUNADO SAN PRUDENCIO
SERVICIO MEDIO AMBIENTE MANCOMUNADO SAN PRUDENCIO
SERVICIOS ALZUAIT, S.L.
SERVICIOS DE COMUNICACION INDUSTRIAL URSAN, S.L.U.
SERVICIOS Y REPARACIONES DEL NEUMATICO, S.A.
SHUTON, S.A.
SIDENOR ACEROS ESPECIALES, S.L.
SISCA SEÑALIZACIONES, S.L.
SISTEMAS SATRA, S.L.
SNA EUROPE INDUSTRIES IBERIA, S.A.
SOCIEDAD ALAVESA DE INVERSIONES, S.A.
SOLBULEVAR, S.L.
SUNTECH SISTEMAS DE MONTAJE, S.L.
SUSAETA SEGUROS ASEGURAOAK, S.L.
TALLERES ARATZ, S.A.
TALLERES BIABI, S.A.
TALLERES ELECTRICOS ARMENTIA, S.L.
TALLERES GAMUAR, S.L.
TALLERES MECANICOS LEGUTIANO, S.A.
TALLERES SALLA, S.A.
TALLERES SIDEKO, S.A.
TAPICERIAS GONHER, C.B.
TDN, S.A.
TECNICAS DE SOLDADURA VITORIANAS, S.L.
TECNICAS NUMERICAS, S.L.
TRADISA GREENPARC, S.L.
TRANSAGURAIN, S.A.
TRANSFORMADOS COMBISA, S.L.
TRANSFORMATION SERVICES TUBE, S.L.
TRANSPORTES IBARRA, S.L.
TRANSPORTES Y BOMBEO, S.L. (Nº 1245)
TUBOPLAST HISPANIA, S.A.
TUBOS DE LEGUTIANO AUTOMOCION, S.L.U.
TUYPER, S.A.
ULMA CONVEYOR COMPONENTS, S. COOP.
UNIKARE BIOSCIENCE, S.L.
URIBESALGO, S.A.
URPA URIARTE PAGALDAI, S.L.
URSSA, S.COOP.
VEHICULOS Y SERVICIOS ECO-ELECTRICOS AGROMOTOR, SL
VENTICLIMA, S.A.
VIDAL-ABARCA ABOGADOS, S.L.
VITORIANA DE AUTOMOVILES, S.A.
VITORIANA DE INMUEBLES, S.A.
XPO TRANSPORT SOLUTIONS SPAIN, S.L.
ZAYER, S.A.
ZIGOR CORPORACION, S.A.
ZIGOR RESEARCH & DEVELOPMENT, A.I.E.
ZIGOR T&C, S.L.U.
ZIKOTZ, S.A. ZIGOR CORPORACION, S.A.
ZIGOR RESEARCH & DEVELOPMENT, A.I.E.
ZIGOR T&C, S.L.U.
ZIKOTZ, S.A.

“Elkarrekin iristea hasiera besterik ez da. Elkarrekin jarraitzea, aurrerapena. Elkarrekin lan egitea, arrakasta”.

HENRY FORD

